# *PRENTSA DOSIERRA*
# DOSIER DE PRENSA

*Sorkuntza koreografikoa: aurkezpen jardunaldiak*
Creación coreográfica: jornadas de presentación

*18. edizioa* | 18ª edición

**PROGRAMA 11-12-13-X-2024**

**Artium Museoa**
*Euskal Herriko Arte Garaikidearen Museoa*
Museo de Arte Contemporáneo del País Vasco

https://dantzanbilaka.org/

## *PROGRAMAREN KREDITUAK* / CRÉDITOS DEL PROGRAMA

*Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren Programa* / Un programa del Departamento de Cultura y Política Lingüística del Gobierno Vasco.

**Ekoizpena, kudeaketa eta komunikazioa / Producción, gestión y comunicación:**

ADDE (*Euskal Herriko Dantza Profesionalen Elkartea* / Asociación de profesionales de la Danza del País Vasco)

**Laguntzarekin batera / Con la colaboración de:**

Artium Museoa, Azala Kreazio Espazioa

**Batzorde artistikoa / Comisión artística:**

Ángela Millano, Isaak Erdoiza

**Arduradun teknikoa / Responsable técnico:**

Javi Andraka

**Argazki erregistroa, teaserra eta jardunaldien ikusentzunezko dokumentazioa / Registro fotográfico, teaser y documentación audiovisual de las jornadas:**

Teklak

**Eskuprogramaren Diseinua, Maketasioa este Irudia / Diseño, Maquetación e Imagen del programa de mano:**

Ibon Landa

**Itzulpenak / Traducciones:**

Oier Iruretagoiena

# DANTZAN BILAKA 2024

SARRERA EUSKARAZ

DANTZAN BILAKA etengabe eraldatzen ari den programa da, esperientziak kontrastatzeko eta sorkuntza koreografiakoko prozesuak partekatzeko gogotik sortua, ideia eta lengoaien aniztasuna indartuz, eta hala Euskal Herriko praktika koreografikoei ekarpena eginez.

Elkarrizketa erraztuko duen lan-testuingurua eskaini nahi du programa honek, aukeratutako pertsonen sorkuntza prozesuak bultzatu, lagundu eta ikusarazteko helburuarekin. Dantzan Bilaka-ren ekintzak urtean zehar zabaltzen dira, eta azken jardunaldi hauekin amaitzen dira. Aurtengo edizioa bere baitan jaso du Artium Museoak, eta aurtengo deialdian garatu diren proiektuak erakutsiko diren programa aurkeztuko dugu bertan. Zazpi artistak euren sorkuntza prozesuak partekatuko dituzte hainbat formatutan museoko espazioetan.

Duela lau urtetik, helburuen inguruko hausnarketa luzeen ondorio diren aldaketa garrantzitsuak ditu programak. Aldaketa nagusienetako bat honakoa da: ematen den laguntza ez dela soilik ekonomikoa, eta hala, entsegurako espazioak, bidelaguntza artistikoa eta profesionalek emandako tailerrak ere eskaintzen ditu programak, berekin dakarrelarik onuradunek ekintza guztietan parte hartzeko derrigortasuna ere. 2024an zehar proiektuak aukeratu zaizkien pertsonek euren proiektuetan sakondu ahal izana suposatu du honek, egonaldi artistikoen bi denboraldi trinkotan, Artium Museoan bata eta AZALA Kreazio Espazioan bestea, bakoitza astebeteko iraupenarekin.

Egonaldietan, María Ibarretxeren “Gorputza abiarazteko leherketa iragankorrak” eta Arantxa Martinezen “Erlazio printzipioak. Polinizazioa.” tailerretan parte hartu ahal izan dute, eta horrekin batera, Isaak Erdoiza eta Ángela Millanok osatzen duten DBko batzorde artistikoaren bidelaguntza ere izan dute. Gutzi hori entseguetarako espazioen erabilerarekin osatu da, non euren prozesuetan sakondu ahal izan duten.

Hirugarren aldi batean, egonaldi tekniko bat egin dute parte-hartzaileek Artium Museoan, non urriko jardunaldietan aurkeztuko diren materialetan azken egokitzapenak egiteko aukera izan duten.

Batzorde artistikoaren ustez, aipatutako aldaketak berebizikoak izan dira programaren iraupenerako, eta are gehiago gerturatu dute bere helburuetara. Benetako marko bat sortu dela ikusten dugu, non parte hartu duten pertsonek esperientziak, prozesu artistikoak eta bizitzakoak partekatu ahal izan dituzten, aldi baterako komunitate artistiko batean murgilduz, zeinak etorkizunean oihartzunak sortzen jarraituko duen.

Hemezortzigarren edizio honetan, Aitzol Iraola, Alazne Lastra Crespo, Izaro Ieregi González, Maider G. Etxegibel, Nagore Tamayo Goñi, Rebeca Barroso eta Stefano Mattiellok aurkeztuko dituzte urtean zehar garatutako prozesu artistikoak.

Sorkuntza koreografikoaren inguruko hiru egun hauek gozatzea espero dugu, eta denok aberastuko gaituzten esperientziak elkarrekin partekatzea.

**DANTZAN BILAKA 2024 Koordinazio-taldea.**

# DANTZAN BILAKA 2024

INTRODUCCIÓN EN CASTELANO

DANTZAN BILAKA es un programa en constante transformación que nace con el deseo de abrir un marco para contrastar experiencias y compartir procesos de creación coreográfica, potenciando la diversidad de ideas y lenguajes, y contribuyendo así a la práctica coreográfica en el País Vasco.

El programa quiere ofrecer un contexto de trabajo que facilite el diálogo, con el objetivo de apoyar, acompañar y visibilizar los procesos de creación de las personas seleccionadas. Las actividades de Dantzan Bilaka se extienden a lo largo del año y culminan en estas jornadas finales. Artium Museoa acoge la actual edición, en la que presentamos un programa de muestras de los proyectos que se han desarrollado durante la presente convocatoria. Siete artistas compartirán sus procesos de creación en diversos formatos en los espacios del museo.

Desde hace cuatro años el programa cuenta con cambios importantes fruto de largas reflexiones en torno a los objetivos de éste. Uno de los cambios principales es que la ayuda que se concede no es únicamente económica, sino que el programa también ofrece espacios de ensayo, acompañamiento artístico y talleres con profesionales, y supone además la obligatoriedad de las personas beneficiarias a participar en todas estas actividades. Esto ha supuesto que, durante el 2024, las personas cuyos proyectos han sido seleccionados han podido profundizar en sus procesos durante dos periodos intensivos de residencias artísticas, uno en Artium Museoa y otro en AZALA Kreazio Espazioa, cada uno con una semana de duración.

En las residencias, han podido disfrutar de los talleres “Expresiones efímeras para arranques corpóreos” de María Ibarretxe y “Principios relacionales. Polinización” de Arantxa Martínez, a la par que contaban con el acompañamiento de la comisión artística de DB formada por Isaak Erdoiza y Ángela Millano. Todo esto complementado con el uso de espacios de ensayo en los que han podido profundizar en sus propios procesos. En un tercer periodo, las participantes han contado con una residencia técnica en Artium Museoa, donde han tenido la oportunidad de realizar los últimos ajustes en los materiales que se presentan en estas Jornadas de octubre.

Desde la comisión artística entendemos que dichos cambios han sido vitales en las propuestas de continuidad del programa y lo han acercado aún más a sus objetivos. Observamos que se ha generado un marco real en el que las personas que participan de él han podido compartir experiencias, procesos artísticos y vida, sumergiéndose en una comunidad artística temporal que seguirá generando ecos en el futuro.

En esta decimoctava edición Aitzol Iraola, Alazne Lastra Crespo, Izaro Ieregi González, Maider G. Etxegibel, Nagore Tamayo Goñi, Rebeca Barroso y Stefano Mattiello mostrarán los procesos artísticos que han desarrollado a lo largo del año.

Esperamos que disfrutéis de estos tres días de creación coreográfica y que juntas podamos compartir experiencias que nos enriquezcan a todas.

**Equipo de coordinación de DANTZAN BILAKA 2024.**

## JARDUNALDIAK EGUNEZ EGUN / EL PROGRAMA DÍA A DÍA

***ERAKUSTALDIAK:*** *SARRERA LIBREA AFOROA BETE ARTE.*
***TAILERRA:*** ALDEZ AURREKO IZEN-EMATEA. 15€. PLAZA MUGATUAK.
info@addedantza.org

**MUESTRAS:** ENTRADA LIBRE HASTA COMPLETAR AFORO.
**TALLER:** PREINSCRIPCIÓN. 15€. PLAZAS LIMITADAS.
info@addedantza.org

# *Urriak* 11 Octubre

*Ostirala* / Viernes

### 16.00

### *Pensando en voz alta / Ozen pentsatuz*

*ROSA CASADO*

***Tailerra* | Taller**

*Plaza Aretoa / Sala Plaza*

*Iraupena: 120 minutu /* Duración: 120 minutos.

* *Aldez aurreko izen-ematea. (15€) urriaren 9ra arte* info@addedantza.org
* Inscripción previa. (15€) hasta el 9 de octubre en info@addeddantza.org

*Ozen pentsatuz, geure burua eta gainontzekoak entzun ditzakegu. Pentsatzen dudana entzutean, aldatu egiten da airearen hezetasunagatik, eta besteek entzuten dutelako. Beharbada hori, topaketa hori, leku ona litzateke bizitakoa gogoratzeko, egindakoa birpentsatzeko eta irudikatutakoa berridazteko.*
*Denboran elkarrekin bidaiatzeko gonbidapena da tailer hau, sorkuntza prozesuan gertatzen diren aldaketa txikietan eta ia ohartezinak diren mudatzeetan arreta jarriz. Iparrorratz-praktikak garatzea da asmoa, laguntza izan dadin gure burua kokatzeko, zer egin dugun eta zer egiten ari garen kontatzeko eta nondik eta norantz egiten dugun antzemateko edo aurkitzeko.*

Pensar en voz alta nos permite oírnos y oír a otrxs. Lo que pienso, al sonar, se modifica por la humedad del aire y porque otrxs lo oyen. Tal vez ahí, en ese encuentro, sería un buen lugar donde rememorar lo vivido, repensar lo hecho y reescribir lo imaginado.
Este taller es una invitación a viajar juntxs en el tiempo atendiendo a los pequeños cambios, a los desplazamientos apenas perceptibles, que se dan en el proceso creativo. La intención es desarrollar prácticas-brújula que nos ayuden a orientarnos, a contarnos lo que hemos hecho, lo que estamos haciendo y reconocer o descubrir desde dónde y hacia dónde hacemos.

## 19.00

## MARIPOS4

ALAZNE LASTRA CRESPO

***Aurkezpena* | Presentación**

*Plaza Aretoa / Sala Plaza*

*Iraupena: 30 minutu /* Duración: 30 minutos

EUS ES

*FITXA ARTISTIKOA /* FICHA ARTÍSTICA

***Sortzaile eta interpretea* / Creación-Interpretación:** Alazne Lastra Crespo

**Kanpo-begirada / Mirada externa:** Raira Rosenkjar + Angela R. Sagredo

## 20.00

## *Nondik Abiatu Inora / Desde dónde partir hacia ninguna parte*

NAGORE TAMAYO GOÑI + NATALIA BELÉN FERNÁNDEZ

***Aurkezpena* | Presentación**

*A4 Aretoa / Sala A4*

*Iraupena: 20 minutu /* Duración: 20 minutos

*FITXA ARTISTIKOA /* FICHA ARTÍSTICA

***Sorkuntza* / Creación:** Nabiga kolektiboa

***Zuzendaritza* / Dirección:** Nagore Tamayo Goñi

EUS ES

***Koreografia eta interpretazioa* / Coreografía e interpretación:** Natalia Belén Fernández + Nagore Tamayo Goñi

***Soinu espazioa* / Espacio sonoro:** Mattin Zeberio Larraza

***Kanpo-begirada* / Mirada externa:** Natalia de Miguel

## *Urriak* 12 Octubre

*Larunbata* / Sábado

### 12.00

### *Pensando en voz alta / Ozen pentsatuz*

ROSA CASADO

***Tailerra* | Taller**

*Plaza Aretoa / Sala Plaza*

*Iraupena: 120 minutu /* Duración: 120 minutos.

### 17.00

### HAYALGO

MAIDER G. ETXEGIBEL + BENEDETTA LESO

EUS ES

***Aurkezpena* | Presentación**

Artiumeko barruko patioa, Esther Ferreren Números primos obran eta inguruetan / Plaza interior del Artium, en la obra Números primos de Esther Ferrer y alrededores

*Iraupena: 30 minutu /* Duración: 30 minutos

FITXA ARTISTIKOA / FICHA ARTÍSTICA

***Sortzaile eta interpreteak* / Creadoras e intérpretes:** Maider G Etxegibel + Benedetta Leso

***Laguntza artistikoa* / Ayuda artística:** Bagara Kolektiboa

***Objetu-trajeen sortzaileak* / Creadoras de los objetos-trajes:** Maider Aldasoro + Maider G Etxegibel

### 18.00

### (te)CHRONOCEPTION

STEFANO MATTIELLO

***Aurkezpena* | Presentación**

*A4 Aretoa / Sala A4*

*Iraupena: 20 minutu /* Duración: 20 minutos

EUS ES

*FITXA ARTISTIKOA /* FICHA ARTÍSTICA

***Sorkuntza eta interpretazioa* / Creación e interpretación:** Stefano Mattiello

***Kanpo-laguntza* / Ayuda externa:** Clarissa Costagliola

## 19.00
## HUSTU
### AITZOL IRAOLA

***Aurkezpena* | Presentación**

*Artiumeko barruko patioa, Esther Ferreren Números primos obran / Plaza interior del Artium, en la obra Números primos de Esther Ferrer*

*Iraupena: 25 minutu /* Duración: 25 minutos

EUS ES

*FITXA ARTISTIKOA /* FICHA ARTÍSTICA

***Koreografia eta interpretazioa /* Coreografía e interpretación:** Aitzol Iraola

***Laguntza mugimenduan /* Ayuda en movimiento:** Maitane Sarralde

## *Urriak* 13 Octubre
*Igandea* / Domingo

## 12.00
## *Pensando en voz alta / Ozen pentsatuz*
### *ROSA CASADO*

***Tailerra* | Taller**

*Plaza Aretoa / Sala Plaza*

*Iraupena: 120 minutu /* Duración: 120 minutos.

## 17.00
## Arrorró
### REBECA BARROSO + SARA FONDEVILA

***Aurkezpena* | Presentación**

*Artiumeko barruko patioa, Esther Ferreren Números primos obran / Plaza interior del Artium, en la obra Números primos de Esther Ferrer*

*Iraupena: 15 minutu /* Duración: 15 minutos

*FITXA ARTISTIKOA /* FICHA ARTÍSTICA

***Koreografia eta interpretazioa /* Coreografía e interpretación:**

Rebeca Barroso + Sara Fondevila

***Soinu-konposizioa /* Composición sonora:** Gabriel Abi Saber

EUS ES

**18.00**

**ANGA**

IZARO IEREGI GONZÁLEZ

***Aurkezpena* | Presentación**

*A4 Aretoa / Sala A4*

*Iraupena: 30 minutu* / Duración: 30 minutos

EUS ES

*FITXA ARTISTIKOA* / FICHA ARTÍSTICA

***Koreografia* / Coreografia:** Izaro Ieregi Gonzalez

***Performerra* / Performer:** Izaro Ieregi Gonzalez

***Zuzeneko soinua* / Sonido en directo:** Camilo Tonon

https://dantzanbilaka.org/

Harremanetarako: comunicacion@addedantza.org
747 41 98 91